


Euskal AEko BPG eta enplegua %0,5 hazi dira 2024ko lehen hiruhilekoan

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, BPG %1,6 hazi da eta enplegua %2,0

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) %0,5 igo da 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean, Eustatek egindako Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen zenbatespenen arabera. 2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, Euskal AEko BPGren hazkundea %1,6koa izan da.



Kontu hau egiteko unean eskura dagoen koitunturazko informazio ekonomikoaren arabera, urteko lehen hiruhileko honetan Euskal AEko ekonomian ikusitako urte arteko hazkundea zerbitzuen sektorearen bilakaeran oinarritzen da nagusiki.

Enplegua ere, lanaldi osoko baliokidetzako lanpostu gisa neurtuta, %0,5 igo da 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, %2,0ko hazkunde zenbatetsia.

Datorren **ekainaren 7an**, Eustatek BPGren eta enpleguaren zenbatespen bereiziak argitaratuko ditu 2024ko lehen hiruhilekoko Hiruhileroko Kontuetan; izan ere, hori egiteko unean eskuragarri ez zegoen koiunturazko informazio ekonomikoa txertatu ahal izango du.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62